

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko funtsezko baliabide batzuk ditugu. Gure kasuan, giza baliabideaz, finantza baliabideaz, baliabide intelektualaz eta baliabide fisikoaz baliatu gara bezeroi gure zerbitzua eskaintzeko.

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoei** dagokionez gure enpresa garatzeko aspaldian Sestaon fabrika bat zegoen espazioa aprobetxatu dugu eta gure negozioa montatu dugu. Enpresa esparru bakotzaren instalaziak montatu ditugu: Diskoteka, gune berdea eta bi solairutan lokalak eta tabernak antolatu ditugu.

Baliabide intelektualari dagokionez, gazteentzako aisialdia eta segurtasuna lortuko dugu, honetaz aparte enpresan gazteak ikasteko aukera edukiko dute.

Finantza-baliabideak lortzeko, hiru enpresa elkartu gara, eta bakoitzak 10.000€ eta gure baliabideak jarriko ditugu. Honela, diskoteka enpresak bere zerbitzu guztiak eskainiko ditu: bere hornitzaileak, bere egitura...

Teknologia berriztagarrien enpresa plaka fotovoltaikoak eta birziklapen sistemarekin zerikusia daukaten instalazioak aplikatuko ditu. Eta horrekin energia merkeago lortzeaz gain, gobernuak subentzioak emango dizkigu autokontsumoa sustatzeko.

Eta azkenik, aisialdi enpresak, gazteek alkilatuko dituzten lokalez arduratuko da, baita biblioteca, gela insonorizatuen muntaketa eta aretoan egingo diren hizketaldiaz.

Honekin batera 15,000 euroko kreditua eskatuko diogu Kutxabank-i, gazte ekintzaileak hasierako tramiteekin laguntzen dituelako: Dokumentazio guztia prestatzea eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean tramitatzea.

Azkenik, **giza-baliabideak** gure enpresan bereziak dira gazte ekintzaileei zuzenduta dagoelako. Bertan haien negozioa montatu nahi duten gazteei erraztasunak emango diegu. Hala nola, alokairu merkeak jarritz. Eta beste bi jardueratan (Diskotekan eta lokaletan) esparru horretako arduradunak langileak kontratatuko dituzte, irakasleak ekarri hitzaldiak emateko etab.